# A- << Argitalpena >>

**A- Edición: J. Gogeascoechea**

**Área 3- Industrias Culturales**

**3. Arloa: Kultura Industriak**

**(Versión en euskera; euskarazko bertsioa)**

**Febrero, 2003ko otsaila**

# ARGITALPENA

## EUSKAL ARGITALETXEEN SEKTOREA

**TXOSTENA**

***1. HITZAURREA***

***2. EGOERARI BURUZKO TXOSTENA. EUSKADIKO LIBURU-ARGITALETXEEN SEKTOREAREN AMIA (AHULEZIAK, MEHATXUAK, INDARRAK ETA AUKERAK) TXOSTENA***

**2.1. KANPO-AZTERKETA**
2.1.1. Euskadiko biztanleria
2.1.2. Hezkuntza
2.1.3. Barne-eskaria. Irakurzaletasuna
2.1.4. Edizio elektronikoa
2.1.5. Legedia eta politika publikoak
2.1.6. Gizarte elebiduna. Euskara + Gaztelania
2.1.7. Teknologia

**2.2. BARNE-AZTERKETA**
2.2.1. Euskadiko liburu-editoreen elkartea. Egoera orokorra
2.2.2. Fakturazio-kopuruaren araberako azterketa
2.2.3. Enpresen tamaina
2.2.4. Kontsumo-merkatua
2.2.5. Banatzeko bideak
2.2.6. Liburuaren + kulturaren prezioa

**2.3. AMIA AZTERKETAREN EMAITZA NAGUSIAK**

***3. GOMENDIOAK***

**3.1. ADMINISTRAZIO PUBLIKOARI**

***4. ERANSKINAK***

4.1. I. ERANSKINA. Gaitasun linguistikoa (portzentaje bertikalak)

4.2. II. ERANSKINA. Ikasleak, mailaka, irakaskuntza elebiduneko ereduaren arabera

4.3. III. ERANSKINA. Ikasleak, titulu eta mailaren arabera

***5. INFORMAZIO-ITURRIAK***

5.1. Euskadiko liburu-argitaletxeen sektoreari buruzko txostena. Barne-merkataritza, 2001

5.2. Liburuak irakurtzeko eta erosteko ohitura Euskadin, 2001

5.3. Liburuen barne-salerosketa Espainian, 2001

5.4. Liburuen eta antzeko produktuen salerosketa Euskadin, 2001-2000

5.5. Eustat-en koadro estatistikoak

## 1. HITZAURREA

Euskadiko Liburu Argitaletxeen sektorea gaur egun zertan den zehaztea du helburua Txosten honek, baita sektorearen lehiakortasuna hobetzeko ondorioak eta gomendioak biltzea ere, sektoreak dituen erronkei aurre egin ahal izateko eta, bereziki, identifikatzen diren aukerak aprobetxatu eta erabili ahal ditzaten liburu-argitaletxeek.

Ohar bat idazki hau behar bezala interpretatzeko: Txostena ez da (ez baitu hori asmoa) ez merkatu-azterketa bat, ez sektore honetako enpresen azterketa zehatza eta zorrotza, ezta sektore honetan diharduten Euskadiko eta estatu espainiarreko gainerako herrialdeetako enpresen jardueren arteko konparaketa ere.

Etorkizunerako gomendioak ematea du helburu Txostenak, Euskadiko Editoreen Elkartearen iturriak erabiliz egindako egoera-azterketa oinarri hartuta.

Euskadin argitaratzen diren liburu guztiei buruzkoa da Txostena. Beraz, hor ageri diren informazioa eta ondorioak bai euskarazko bai gaztelaniazko edizioari dagozkio.

## 2. EGOERARI BURUZKO TXOSTENA. EUSKADIKO LIBURU-ARGITALETXEEN SEKTOREAREN AMIA (AHULEZIAK, MEHATXUAK, INDARRAK ETA AUKERAK) TXOSTENA

Euskadiko liburu-argitaletxeen sektorea benetan nola dagoen jakin eta hortik abiatuta haren lehiakortasuna hobetzeko gomendioak eskaini ahal izateko, sektoreari eragiten dioten barne- eta kanpo-faktoreen azterketa egin dugu.

Aztertu diren barne-eta kanpo-faktore horien araberako egitura du Txosten honek.

### 2.1. KANPO-AZTERKETA

#### 2.1.1. Euskadiko biztanleria

Biztanleria da aztertu beharreko lehen kanpo-faktorea, barne-merkatuaren (Euskadi) tamaina jakiteko garrantzizko informazioa baitakarkigu, baita beste honi buruzkoa ere: adinaren, hezkuntza-profilaren eta EAEko bi hizkuntza ofizialen ezagutzaren arabera nola banatzen den populazioa. Informazio horrek guztiak argitaletxeen sektorerako hainbat aukera atzemateko bidea eskainiko digu, zalantzarik gabe.

**Eustat**-en datuen arabera, 2.082.587 herritar zituen Euskadik 2001eko amaieran. Hona hemen nola banatzen den biztanle-kopuru hori Euskadiko hiru lurralde historikoetan.



Taula honetan duzue adinaren araberako biztanleriaren banaketa:




Kontuan hartu beharrekoa da adinaren araberako banaketa (baita ikasketen eta eskolatze-tasen araberakoa ere) liburuen argitalpenak eta fakturazioak –testu-liburuenak eta gainerakoenak– izan dezakeen bilakaera kalkulatzeko. Era berean, argitalpen inprimatuaren ordezko euskarrien erabilerak eta hazkundeak sektoreari eragin diezaiokeen inpaktua kalkulatzeko ere baliagarria da banaketa hori.

### 2.1.2. Hezkuntza

Koadro honetan duzue ikasketen araberako biztanleriaren banaketa. Gogoan izan hamar urtetik gorako herritarrei buruzko datuak direla.

| | Guztira | Analfabetoak | Ikasketarik gabeak | Eskolaurrea eta lehen mailako ikasketak | Ikasketa profesionalak | Bigarren mailako ikasketak | Erdi-/goi-mailako ikasketak | Goi-mailako ikasketak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Araba | 257.824 | 1.245 | 11.954 | 126.381 | 38.982 | 41.051 | 16.062 | 22.149 |
| Bizkaia | 1.049.924 | 10.004 | 59.830 | 496.582 | 147.916 | 167.003 | 62.103 | 106.486 |
| Gipuzkoa | 619.899 | 4.238 | 35.440 | 298.228 | 94.948 | 96.289 | 37.000 | 53.756 |
| **Euskadi** | **1.927.647** | **15.487** | **107.224** | **921.191** | **281.846** | **304.343** | **115.165** | **182.391** |




Datu horiek adierazten digutenez, Euskadiko herritarren % 46k –gutxienik– dauzka bigarren mailako ikasketak. Horrenbestez, biztanleriaren erdia baino gehiago izan daiteke testu-liburuez bestelako liburuen kontsumitzaile, teorian bederen.

Grafiko honek azaltzen digu nola banatzen diren ikasleak hezkuntza-ereduaren arabera:



Eranskin hauek garrantzizko datuak eskaintzen dizkigute Euskadiko biztanleriaz:

1. eranskina. Gaitasun linguistikoa.
2. eranskina. Ikasleak, mailaka, irakaskuntza elebiduneko ereduaren arabera.
3. eranskina. Ikasleak, titulu eta mailaren arabera.

### 2.1.3. Barne-eskaria. Irakurzaletasuna

Esku artean ditugun azterketen datuekin, Euskadiko liburu-kontsumoa kalkulatzeko moduan gara.

'Espainiako barne-salerosketari buruzko txostena, 2001' dokumentuak datuok ageri ditu:

- 2.606,7 milioi euro fakturatu zituen argitaletxeen sektoreak (elkarteko partaide direnek) estatu osoan 2001ean.

- Fakturazio horren % 5 Euskadin saldu zen, hau da, 130,3 milioi euroko salmentak izan zituzten sektoreko enpresek (elkarteko partaide direnek) Euskadin 2001ean (*).

(*) Elkarteko partaide ez diren enpresen fakturazioa gehitu behar zaio kopuru horri.

'Liburuak irakurtzeko eta erosteko ohitura Euskadin, 2001' txostenean, berriz, beste datuok ageri zaizkigu:

- Testu-liburuez bestelako 10,1 milioi liburu erosi ziren Euskadin 2001ean. Irakurle izan daitezkeen herritarren kopurua 1.819.706koa dela kontuan hartuta, 6na liburu erosi zituen –batez beste– herritar bakoitzak.

- 10,32 eurokoa izan zen liburu bakoitzaren (testu-liburuez bestelakoak betiere) batez besteko prezioa aipatu urtean. Beraz, eta aurreko irizpideari jarraiki, honako hau ondoriozta daiteke: Euskadiko irakurle potentzial bakoitzak 57,3 euro gastatzen ditu urtean liburutan.

- Testu-liburuez bestelako liburuen kontsumoa 104,3 milioi eurokoa izan zen.

Testu-liburuak ere kontuan hartuz gero, berriz, 130 milioi eurotik gorakoa izan zen liburu-kontsumoa Euskadin 2001ean. Euskadiko argitaletxeek urte horretan Euskadin saldu zutenarekin (ia 40 milioi euro) alderatuz gero, garbia da ondorioa: Euskaditik kanpoko enpresen esku dago hemengo liburu-merkatuaren zati handiena, % 70 ingurukoa.

**Liburuen kontsumoa Euskadin (*)**

| Adina | Biztanleria | Erosten duten herritarren % | Zenbat liburu erosten den, batez beste | Erosi diren liburuak, guztira |
|---|---|---|---|---|
| < 15 | 262.881 | | | |
| 16-24 | 274.314 | % 59,6 | 6 | 980.947 |
| 25-34 | 345.742 | % 81,7 | 9 | 2.542.241 |
| 35-44 | 333.902 | % 81,3 | 11 | 2.986.086 |
| 45-54 | 285.712 | % 72,0 | 10 | 2.057.126 |
| > 55 | 580.036 | % 37,9 | 7 | 1.538.836 |
| Guztira > 15 | 1.819.706 | | | 10.105.235 |

**(*)** (Liburu-testuak ez daude sartuta)

***Liburuak erosteko ohitura. Biztanleria-kopuruaren eta liburu-salmentaren arteko korrelazioa (editore-elkarteko partaide diren enpresei buruzko datuak, soilik).***

Biztanle-kopuruaren eta liburu-salmentaren arteko korrelazioa aztertzeak bidea ematen digu honako hau jakiteko: zenbateraino dagoen sakabanatuta liburu-merkatua estatu espainiarrean, liburuak erosteko ohiturari dagokionez.

Datu esanguratsuak dituzue hurrengo koadro honetan, Euskadiko liburu-kontsumoaren ratioa beste autonomia-erkidego batzuetakoarekin (ratio handiagoa dutenekin) alderatzen baitu.

**Biztanleria-kopuruaren eta liburu-salmentaren arteko korrelazioa**

| | Salmentak | Biztanleria | Korrelazioa |
|---|---|---|---|
| **Katalunia** | % 24,5 | % 15,5 | % 9,0 |
| **Madril** | 21,8 | 13,3 | 8,5 |
| **Euskadi** | 5,0 | 5,1 | -0,1 |

Euskadin -0,1ekoa da biztanleria-kopuruaren eta elkarteko partaide diren enpresen liburu-salmentaren arteko korrelazioa, hau da, estatuko biztanleriaren % 5,1 izaki, salmenten % 5 dagokio. Oso urruti dabil ratio hori Kataluniakoetatik eta Madrilgoetatik, estatu osoko hoberenetatik alegia.

Honako hauek dira korrelazio positiboa duten autonomia-erkidegoak: Katalunia, Madril, Kantabria eta Errioxa.

***Liburuak irakurtzeko ohitura***

*Aisialdian irakurtzen diren liburuak*

Hiru multzotan banatuko ditugu irakurleak:

- *Ohiko irakurleak*: elkarrizketatuen % 52,5ek hilean behin edo gehiagotan irakurtzen dute libururen bat (% 43,3 ohiko irakurleak dira, astean behin –gutxienez– irakurtzen baitute).

- *Aldizkako irakurleak*: elkarrizketatuen % 25,9k hiru hilean behin, edo ia inoiz ez, irakurtzen dute libururen bat.

- *Ez-irakurleak*: elkarrizketatuen % 21,6 dira multzo honetakoak.




2000. urtean jaitsi egin zen irakurtzeko zaletasuna, behera egin baitzuen ohiko irakurleen kopuruak: 199an herritarren % 45,3k irakurtzen zuen astean behin baino gehiagotan; 2000n, berriz, % 43,3k bakarrik.




Maiz irakurtzen dutenek 5,8 ordu ematen dituzte horretan astean. Horietatik egunean ordu-erditik gora irakurtzen dute % 80 inguruk.




Irakurle-tipologiaren arabera, hauek dira emaitzak:

- Emakumezkoek gizonezkoek baino liburu gehiago irakurtzen dituzte (emakumezkoen % 56,9k hilero irakurtzen du, gizonezkoen % 47,8ren aldean). Murriztu egin da , beraz, batzuen eta besteen artean 1999an zegoen aldea (emakumezkoen % 61,4k; gizonezkoen % 48,3k). Batez ere emakumezkoen irakurzaletasunak egin du behera tarte horretan, 4,5 puntu jaitsi baita 1999ko portzentajea. Bere horretan dirau, bestalde, emakumezkoek zein gizonezkoek irakurtzen ematen duten ordu-kopuruak. Laburbilduz, badirudi ez dela nabarmen urritu irakurtzen duten gizonezkoen proportzioa, ezta irakurtzen ematen duten denbora ere. Aitzitik, beherakada handia izan du irakurtzen duten emakumezkoen portzentajeak, lehen adina denbora –gutxi asko– ematen badute ere zeregin horretan. Irakurtzen ez duten gizonezkoen tasak izan du, bestalde, aldaketa aipagarria, 1999ko % 31,5etik gaur egungo % 21,3ra jaitsi baita.

- Adinari dagokionez, 44 urtera bitartean % 62 inguru dira ohiko irakurleak; hortik aurrera behera egiten du portzentajeak eta % 35eraino jaisten da 55 urtetik gorakoen artean. Adin horretatik aurrerakoak dira, alabaina, ordu gehien irakurtzen dutenak (astean batez beste 7,6 ordu zenbaitek). Labur esanda: irakurtzen duten gutxi horiek asko irakurtzen dute. Ez datoz bat datuok 1999koekin: orduan, 25-34 urte bitartekoek irakurtzen zuten ordu gehien.

- Zenbat eta handiagoa ikasketa-maila, orduan eta handiagoa irakurle-proportzioa. Gauza bera gertatzen da klase sozialari eta habitatari dagokienez. Beraz, eragin positiboa dute hiru faktore horiek (ikasketa-maila onak, habitat egokiak eta behe-mailako klase sozialekoa ez izateak) liburuak irakurtzeko joeran eta ohituran.

- Lurralde historiko batzuetatik besteetara, bestalde, ez dago alde handirik, eta aurreko urteko proportzio bertsuei eusten diete denek, ohiko irakurleen portzentajeari dagokionez. Gipuzkoak dauka ohiko irakurle gutxien, baina herrialde horretan irakurtzen da ordu gehien (7 ordu astean, batez beste). Araban, berriz, % 51,4 dira ohiko irakurleak (1999an % 56 ziren), baina astean 5,1 ordu irakurtzen dute (1999an bezalaxe). Bizkaian, zer edo zer behera egin du ohiko irakurleen portzentajeak (% 55,4tik % 52, 3ra), baita astean irakurtzen dituzten orduen kopuruak ere (5,7tik 5,5era).

*Zenbatek irakurtzen duen gaur egun; zenbat liburu irakurtzen dituzten urtebetean*

Elkarrizketatutako irakurleen (ohikoak + aldizkakoak) % 78 ari da gaur egun libururen bat irakurtzen. Elkarrizketatu guztien % 60 ingurukoa da, beraz, portzentajea, eta bat dator hiru hilean behin –gutxienik– irakurtzen dutela diotenen kopuruarekin. Gogoan izan herritarren % 41ek ez duela inoiz edo ia inoiz libururik irakurtzen.







Datuok adierazten digutenez, ez dago sexuaren araberako aldaketarik urtean irakurtzen den liburu-kopuruan. Adinari dagokionez, berriz, urtean irakurtzen den batez besteko liburu-kopuruaren banaketak ez du aparteko gorabeherarik ageri. Gehien irakurtzen dutenak 35-44 urte bitartekoak dira.

Zenbat eta handiagoa irakurleen ikasketa-maila, hainbat eta handiagoa irakurtzen den batez besteko liburu-kopurua.


Urtean irakurtzen duten liburu-kopurua (adinaren arabera)
8
10
13
11
9
16-24 urtekoek
25-34 urtekoek
35-44 urtekoek
45-54 urtekoek
55 urtetik gorakoek




2.1.4. <u>Edizio elektronikoa</u>

**TEKNOLOGIA BERRIAK. Euskarri elektronikoak eta 'ingeniaritza linguistikoa'**

'Ingeniaritza linguistikoaren' tresnak informazioa bilatzeko, edukiak aurkitu eta bahetzeko, horiek elkarrekin biltzeko, laburpenak egiteko eta txostenen zein mezuen itzulpenak egiteko erabiltzen dira, edozein delarik ere hizkuntza.

Horrenbestez, 'ingeniaritza linguistikoari' esker aurkeztu eta egokituko dira etorkizuneko gizartean eta ekonomian zibilizazioen historia, kultura eta hizkuntzak. **Izugarrizko garrantzia izango du baliabide horrek, 'Informazioaren gizartea' deritzon horretako euskarri teknologikoetan jarduteko aukerak asko zabaltzen baititu.**

Informazioaren teknologiekiko mendekotasun handia izango dute etorkizunean jarduera ekonomiko garrantzitsu askok, EKONOMIA DIGITALA deritzon hori dela eta.

**Europako hizkuntz aniztasunak abantaila eta desabantaila handiak dakartza, konplexua baita egoera linguistikoa.** Zerbitzu digitalei ahalik eta etekin handiena ateratzeko, sarbide-eskubideak erabat bermatu behar dira. Bai hizkuntz aniztasuna bai 'ingeniaritza linguistikoak' dakartzan ahalbideak kontuan izan beharreko faktoreak dira negozio-aukerei dagokienez. Izan ere, Euskadiko egoera elebidunari egokitutako edizio-aukerak hobetzeaz gain, beste herrialde batzuetara esportatzeko ere lagungarri izan daitezke ahalbide horiek.

**INGENIARITZA LINGUISTIKOA aplikatzeko eremuak**

Hona hemen ingeniaritza linguistikoa dela-eta liburu-argitaldariek kontuan hartu beharreko jarduera-eremu batzuk, bai negozio-aukerak aprobetxatzeko bai teknologia horrek dakartzan arriskuei aurre egiteko:

- **EDUKI-INDUSTRIA:** Internet, ikus-entzunezkoak, multimediak, off eta on line edizioak...
- **AISIA ETA DENBORA-PASA:** ipuin informatizatuak, *talk books*-ak, gidak (bidaiak, hiriak, zerbitzuak...), entziklopediak –hizkuntza bakarrean eta askotan eginak, euskarri elektronikoan– eta abar.
- **TREBAKUNTZA:** hizkuntzen ikaskuntza, hezkuntza teknikoa eta profesionala, etengabeko prestakuntza, zientziaren dibulgazioa...

Azpimarratzekoa da –informazioaren teknologia berriei dagokienez– jarduera osoaren % 20 bereganatzen dutela gaur egun softwarearen, ikus-entzunezkoaren eta multimediaren sektoreek, eta ohiko jarduera batzuen –argitalpenak eta horien merkaturatzea, adibidez– tamaina jo dutela dagoeneko, 1997an Bureau van Dijk Ingénieurs Conseils bulegoak Europako Batzordearen XIII-E Zuzendaritza Nagusiaren aginduz egindako ikerlanak dioenez.

**On line trebakuntza**.

'Jakintzaren kudeaketa' deritzon pentsamendu-korronte estrategikoaren eraginagatik, batetik, eta, bestetik, on line trebakuntzari dagokion jarduera ekonomikoaren arrakastagatik, aditu asko hasiak dira jarduera hori 'jakintzaren ekonomia' delakoaren baitan sartzen.

FORTUNEk plazaratutako datuen arabera, **milioi bat ikasle ari ziren 1997an on line sistemen bidez unibertsitate-ikasketak egiten Ameriketako Estatu Batuetan; 2000. urtean hiru bat milioi izango direla kalkulatzen zen.** Halaber, IDC azterketa teknologikorako enpresa amerikarrak kalkulatu zuenez, **2002. urterako on line ikaskuntza-sistemak izango omen zituzten AEBetako unibertsitateen % 85ek**.

American Society for Training and Development erakundearen txosten baten arabera, berriz, **on line sistemen bidez egiten zen 2000. urtean AEBetako enpresaburuen prestakuntzaren % 28 baino gehiago.**

Informazioaren teknologien erabilerak dakarren gorako joera nabarmena adierazten digute datuok. Edizioaren sektorean ere zuzeneko ondorioak izango ditu joera horrek, bai irakurtzeko ohituran eragingo dituzten aldaketengatik, bai etorkizunean trebakuntza-jarduerek –arautuek eta arautu gabekoek– mundu osoan (Euskadin ere bai, hortaz) izango dituzten euskarriengatik.

**Denbora-pasa, aisia eta sormena**

Museo, arte-galeria, liburutegi eta beste zenbait lekutara bisitaldi birtualak egiteko aukerak kultur esperientzia aberatsak izateko bidea emango dio herritar askori, etxetik mugitu gabe gainera. Hizkuntz teknologiak ezinbesteko lagun dituzte bisitaldi birtual horiek, haien bidez bilatu eta hautatu ahalko baitira hizkuntz erregistro digitalizatuen forma guztiak, baita irudiak indexatu eta berreskuratu, filmen bikoizketa eskuratu eta azpitituluak automatikoki sortu eta liburutegi zein artxiboetako materialak itzuli ere.

Jakina –eta alde batera utzirik eskuratzen diren edukien jabetza intelektualari buruzko alderdi legalak–, gaur egun argitaratzen diren liburu asko eta asko beste euskarri eta formatu batzuetan eskatu eta erosiko dituzte bezeroek etorkizunean. Nahitaez izan behar dute kontuan faktore hori sektorearen gerorako estrategiek, ikusirik zein erraz eskuratzen eta erabiltzen dituzten gazteek teknologia berriak, horietara moldatzeko inongo arazorik gabe. Faktore horien interpretazioari beste hauek ere gehitu behar zaizkio: gizartearen segmentazioa adinaren, eskolatze-mailaren eta teknologia berriekiko atxikimenduaren arabera.

### 2.1.5. Legedia eta politika publikoak

a. Politikak + Programak + Eusko Jaurlaritzaren ekimenak + Foru Aldundiak (Bizkaia, Araba, Gipuzkoa)

a.1. Eusko Jaurlaritza

Hainbat laguntza ematen dizkio Eusko Jaurlaritzak –Kultura Sailaren bidez– argitaletxeen sektoreari:

- Laguntzak euskarazko liburugintzari; 300 liburuki erostea liburutegi publikoetarako, salmenta-prezioaren % 50eko deskontuarekin.
- Diru-laguntzak Euskal Autonomia Erkidegoan liburu-azokak, biltzarrak, hitzaldi-zikloak eta liburuaren sustapen eta hedapenerako kultur ekimenak antolatzeko eta horietan parte hartzeko.
- Diru-laguntzak nazioartean euskal liburua sustatzeko.
- Diru-laguntzak euskara sustatu, hedatu eta normalizatzeko.

Aipatutako laguntzetatik handiena 'Laguntzak euskarazko liburugintzari' atalari dagokio: 438.738 euro.

Argitaletxeen sektoreari zeharka laguntzen dioten beste hainbat laguntza ere banatzen ditu Eusko Jaurlaritzak Kultura Sailaren bidez:

- Udal-liburutegietan haurren eta gaztetxoen irakurzaletasuna bultzatzeko (ipuin-kontalariak) programetarako diru-laguntzak Euskal Autonomia Erkidegoko udalei.
- Liburutegiak egiteko edo berritzeko diru-laguntzak EAEko udalei eta mankomunitateei.
- Liburutegietarako liburuak erosteko edo aldatzeko diru-laguntzak EAEko udalei eta nortasun juridikoko erakundeei.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren bidez, berriz, laguntza hauek ematen ditu Eusko Jaurlaritzak:

- Euskarazko eskola-material inprimatua eskuratzeko laguntzak maila ez-unibertsitarioetarako (EIMA I).
- Euskarazko ikus-entzunezko eskola-materialak sortzeko laguntzak (EIMA II).
- Euskarazko hezkuntza-softwarea sortzeko laguntzak (EIMA III).

Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituen diru-laguntzak % 100ean banatzen eta jasotzen dira beti.

Herritarren irakurzaletasuna sustatzeko ahaleginak egiten ditu Eusko Jaurlaritzak: haurrentzako, adibidez, 'Lau liburu helburu' programa eratu du Kultura Sailaren Liburu eta Liburutegien Zerbitzuak. Haurren literaturzaletasuna bultzatzea du helburu aipatu proiektuak.

a.2. Foru Diputazioak:

Foru Diputazioei dagokienez, azpimarratzekoak dira Gipuzkoakoak eskaintzen dituen hauek:

- Laguntzak euskarazko eskola-materiala ekoizten duten argitaletxeen azpiegituretarako (EIMA).
- Gipuzkoako lurralde historikoko ikastetxeetan banatzeko euskarazko liburuen bilduma (EULI).
- Unibertsitate-gaietako euskarazko oinarrizko liburutegia.
- Diru-laguntzak haurren eta gaztetxoen aisialdirako euskarazko gaiak sortzeko proiektuetarako.

a.3. Estatu espainiarra:

Hainbat laguntza ematen dizkio estatu espainiarrak argitaletxeen sektoreari, Kulturako Estatu Idazkaritzaren 'Laguntzak, bekak eta diru-laguntzak 2002' programaren bidez:

- Irakurzaletasuna eta espainiar literatura sustatzeko laguntzak.

- Atzerrian espainiar liburuen hedapena, merkaturatzea eta banaketa sustatzeko laguntzak.

- Espainiar idazleen literatur edo zientzia-lanak itzultzea eta argitaratzea (atzerriko edozein hizkuntzatan) sustatzeko laguntzak.

- Liburuen argitalpena sustatzeko laguntzak.

- Espainiar idazleen lanak espainiar hizkuntza ofizialetara itzultzea eta horiek argitaratzea sustatzeko laguntzak.

- Amerikan espainiar liburuak sustatzeko laguntzak.

- 50.000 biztanletik beherako udalerrietan irakurzaletasun-proiektuak bultzatzeko lehiaketan parte hartzeko laguntzak.

a.4. Europa

*Kultura 2000 Programa* izenekoa dago Europan nazioz gaindiko lankidetza-proiektuei laguntzeko. EBko partaide diren estatuetako kultur erakundeek, eragileek eta idazleek hartzen dute parte programa horretan, eta hauxe du helburua: kultur eremu bateratua sortzea, kulturen arteko harremana, Europako herrien historia, sorkuntza, kultur hedakuntza, europar kultur ondarea, kultura adierazteko era berriak, kulturaren eginkizun sozioekonomikoa eta artisten zein horien obren mugikortasuna sustatuz.

b. Beste autonomia-erkidego batzuetako politikekiko alderaketa

b.1. Katalunia

Kataluniako Generalitateak hainbat laguntza eta diru-laguntza eskaintzen ditu –Kultura Idazkaritza Nagusiaren bidez–, argitaletxeen sektoreari zuzeneko edo zeharkako onura dakarkiotenak:

Literatura katalana sustatzeko ‘Al vostre gust’ kanpaina.
Literatura katalana sustatzeko ‘Itineraris de lectura’ kanpaina.
Literatura katalana sustatzeko ‘L’escriptor convidat’ kanpaina.
Herri-kultura eta kultura tradizionala: diru-laguntzak enpresei Kataluniako ondare etnologikoari buruzko lanak argitaratzeko.
Literatura katalana: diru-laguntzak literatura katalaneko (garaikidea, ahal dela) korronteak, obrak, egileak eta kritika ikertzeko.
Literatura katalana: diru-laguntzak literatura katalanari buruzko web orriak sortzeko proiektuei.
Literatura katalana: diru-laguntzak katalanez literatura sortzeko proiektuei.
Literatura katalana: diru-laguntzak itzultzaileei, beste hizkuntza batzuetan idatzitako lanak katalanera itzultzeko proiektuetarako.
Literatura katalana: diru-laguntzak literatura katalana sustatzeko eta hedatzeko ekimenetarako.
Literatura katalana: diru-laguntzak gaztelaniara itzulitako literatura katalana sustatzeko ekimenetarako.
Literatura katalana: diru-laguntzak katalanez idatzitako literatur lanak beste hizkuntza batzuetara itzultzeko proiektuetarako.
Literatura katalana: diru-laguntzak beste hizkuntza batzuetan idatzitako literatur lanak katalanera itzultzeko proiektuetarako.
Literatura katalana: diru-laguntzak katalanez idatzitako literatur obren zatiak itzultzeko eta txostenak egiteko, obra horien sustapena eta hedapena bultzatzearren.
Laguntzak garrantzi kultural berezia duten obrak katalanez edo araneraz argitaratzeko.
Laguntza generikoa katalanezko liburugintzari.
Laguntza generikoa aranerazko liburugintzari.

b.2. Andaluzia

Andaluziako Juntak ‘Liburuaren aldeko Andaluziako hitzarmena’ deritzona jarriko du martxan, helburu honekin: andaluziarren eguneroko bizimoduan garrantzizko lekua egitea liburuari. ‘Hitzarmen’ horren barruan, irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina egin zen 2002an irrati, prentsa eta telebistan. Merkatu-preziotan kalkulatuta, 4,8 milioi euro kostatu zen kanpaina.

Aipatu hitzarmenaz gain, laguntza eta diru-laguntza hauek eskaintzen ditu Andaluziako Juntak:

Laguntzak Andaluziarako garrantzi kulturala duten liburuak argitaratzeko.
Laguntzak argitaletxeei.
Diru-laguntza Andaluziako Autonomia Erkidegoko erakunde lokaletako artxiboei.
Diru-laguntza Andaluziako udalei liburutegi publikoak hornitzeko, baita liburu-sortak erosteko ere.

b.3. Madril

Diru-laguntza hauek ematen ditu Madrilgo Erkidegoak:

Diru-laguntza Madrilgo Erkidegoko irabazi-asmorik gabeko Elkarte Profesionalei eta erakundeei liburu-azokak eta erakusketa bibliografikoak eratzeko.
Diru-laguntza Madrilgo Erkidegoko udalei liburutegi publikoak eta irakurketa-zentroak egiteko.
Diru-laguntza Madrilgo Erkidegoko udalei eta mankomunitateei irakurketa sustatzeko ekimenetarako.

**2.1.6. Gizarte elebiduna. Euskara + Gaztelania**

Bi hizkuntza ofizial ditu Euskal Autonomia Erkidegoak. Nahitaez izan behar dute kontuan faktore hori EAEko argitaletxeek, eragin nabarmena baitauka:

- Elebitasuna dela-eta, % 0,8ko bilakaera positiboa izan du azken bost urteotan Euskadin urteroko liburu-fakturazioak (testu-liburuenak eta bestelakoenak). Azpimarratzekoa da epe horretan % 6,3ko igoera izan duela euskarazko liburuen salmentak; gaztelaniazko liburuen fakturazioak, aitzitik, % 2,1 egin du behera epe berean.

- Izugarrizko onura ekartzen diote EAEko liburu-merkatu potentzialaren tamaina eta edukiei (testu-liburuen eta bestelakoen merkatuari) elebitasunak, hezkuntza-ereduen araberako eskolatze-mailak, biztanleria adinaren arabera sailkatzeak eta eskolatzeak.

Gure herriaren egoera espezifiko horrek eta horren tratamenduak zein aprobetxamenduak ez daukate zertan oztopo edo muga izan estatu osoan eta gaztelaniaz mintzatzen diren gainerako herrialdeetan gaztelaniazko liburuen merkatuari gogotsu ekiteko.

Hona hemen kanpo-faktore horri dagozkion zenbait datu esanguratsu:






### 2.1.7. Teknologia

Lehendik informazioaren teknologia berriez eta ingeniaritza linguistikoaz esan dugunaz gain, azpimarratzekoa da liburugintzako teknologiek duten garrantzia sektorearen garapenerako.

Enpresek eskuratu beharra dauzkate, zalantzarik gabe, liburugintzako teknologia berriak.

Ez daukagu informazio eguneraturik editore-elkarteko eta hortik kanpoko enpresen modernizazio-mailari buruz, ezta daukaten liburugintza-teknologiari edo informazio-tratamendurako sistemei buruz ere.

Ezjakintasun hori dela-eta, ez dago txosten zehatzik egiterik sektoreko enpresen egoera teknologikoaz. Gainera, horietako gehienek arte grafikoetako enpresei azpikontratatzen dizkiete inprimatze- eta koadernaketa-lanak.

## 2.2. BARNE-AZTERKETA

### 2.2.1. Euskadiko liburu-editoreen elkartea. Egoera orokorra.

Laurogeita hamazazpi (97) argitaletxe daude Euskadin. Horietatik 35 ziren **Euskadiko Editoreen Elkarteko** kide azterketa egin zenean (gaur egun, 40); 62, berriz, ez dira elkarteko partaide.

Enpresa oso txikiak dira gehienak (idazleak eta editoreak bakarrik osatuak horietako asko), aldian behin libururen bat argitaratzen dutenak. Bestalde, Euskadiko enpresa pribatuen fakturazioaren % 78 da Elkarteko enpresena. Publikoak direlako Elkarteko partaide ez diren hiru enpresa –bakarrik– dira aipatzeko modukoak fakturazio-alorrean.

Euskadiko hamasei argitaletxe pribatu (% 16,5, beraz) dira holding edo enpresa-talderen bateko partaide.

Euskadiko argitaletxeek estatu espainiarrekoekin alderatuta daukaten pisu espezifikoaz erreferentziaren bat izan dezazuen, hona hemen datu-pare bat: estatu espainiar osoan editore-elkarteetako partaide diren enpresen % 5 daude Euskadin. Bestalde, txikiak dira sektoreko (elkarteko kide izan nahiz ez izan) enpresen % 82, hau da, aurreko urtean 600.000 euro baino gutxiago fakturatu zuen horietako bakoitzak.

### 2.2.2. Fakturazio-kopuruaren araberako azterketa

Aurrerago jorratuko dugu zehatz-mehatz sektorearen fakturazioa; atal honetan, berriz, datu orokorrak azalduko ditugu, barne-kontsumoari zorrotz erreparatu gabe, sektorearen magnitude nagusiak azaltzeko asmoz.

Sektoreko enpresen % 36 bakarrik dira Euskadin editore-elkarteko partaide. Hala eta guztiz ere, oso bestelakoak dira gauzak fakturazioari dagokionez: 55,6 milioi euro fakturatu zituzten 2001ean barne-merkatuan elkarteko enpresek, hau da, sektore osoaren (71,0 milioi euro) fakturazioaren % 78.

| Euskadiko argitaletxeen sektorea | Enpresa-kopurua | Fakturazioa (milioika eurotan) 2000 | | 2001 | | Hazkund. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Editore-elkarteko partaideak | 35 | 52,0 | % 73 | 55,6 | % 78 | % 7 |
| Partaide ez direnak | 62 | 18,9 | % 27 | 15,5 | % 22 | -% 18 |
| | 97 | 70,8 | % 100 | 71,0 | % 100 | % 0 |

Hortaz, editore-elkarteetako partaide ez diren enpresek 15,5 milioi euro fakturatu zituzten (sektorearen urteko fakturazioaren % 22 besterik ez). Izan ere, eta lehentxeago genioenez, enpresa txikiak (idazlea + editorea) dira gehienak.

Euskadiko bertako datuak eta datu espezifikoak jakitea garrantzizkoa da, baina ezer gutxitarako balio digute testuinguru zabalagoan –estatu espainiarreko beste autonomia-erkidego batzuetako datuekin alderatuta– aztertzen ez baditugu.

Barne-merkataritzari buruzko azterketak (urteko fakturazioaren arabera sailkatzen ditu enpresak) ematen digu Euskadiren eta estatu osoaren arteko konparaketa egiteko bidea, editore-elkarteetako partaide diren enpresei dagokienez.

| Sailkapena | Fakturazioa | Enpresa-kopurua Estatua | Euskadi | |
|---|---|---|---|---|
| Handia | 18 milioi eurotik gorakoa | 25 | 0 | % 0 |
| Ertain handia | 6,001 milioi eurotik 18 milioi eurora bitartekoa | 43 | 1 | % 2 |
| Ertain ertaina | 2,401 milioi eurotik 6 milioira bitartekoa | 70 | 5 | % 7 |
| Ertain txikia | 601.000 eurotik 2,4 milioira bitartekoa | 153 | 11 | % 7 |
| Txikia | 600.000 eurotik beherakoa | 396 | 18 | % 5 |
| | | **687** | **35** | **% 5** |



### 2.2.3. Enpresen tamaina

Sektoreko enpresen tamaina lan-kontratuarekin daukaten langile-kopuruaren arabera aztertuta, hona emaitza: 369 langile zeuzkan sektoreak 2001ean, hau da, 10,5 langile –batez beste– enpresa bakoitzeko.

Aipatzekoa da sektore honen enplegu- eta aberastasun-ekarpena, baita sormen artistikoa bultzatzeko egiten duen lana ere. Izan ere, liburuak egin eta saltzen dituztenei ez ezik, lana ematen die enpresaz kanpoko idazleei, errealizadoreei, itzultzaileei, ilustratzaileei eta maketatzaileei.

Editore-elkarteko kide ez diren enpresek, berriz, 143 langile izan zituzten 2001ean, hau da, 2,3 langile –batez beste– enpresa bakoitzeko.

Horrenbestez, 512 langile zeuzkan –batez beste– sektoreak 2001ean.

Enpresatik kanpoko laguntzaileei dagokienez, Euskadiko argitaletxeek 13na dauzkate, batez beste.

| **Nominan dauden langileen kopurua** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Editore-elkarteko partaideak** | | | | **Editore-elkarteko partaide ez direnak** | **Guztira, 2001ean** |
| | Ertain handia – Ertain ertaina | Ertain txikia | Txikia | **Guztira** | | |
| Enpresak, guztira | 6 | 11 | 18 | **35** | **62** | **97** |
| Langile-kopurua | % 100,0 | % 100,0 | % 100,0 | % 100,0 | % 100,0 | % 100,0 |
| < 2 | | % 18,2 | % 33,3 | **% 22,9** | **% 54,8** | **% 43,3** |
| 3-5 | % 16,7 | % 18,2 | % 50,0 | **% 34,3** | **% 41,9** | **% 39,2** |
| 6-15 | % 33,3 | % 63,6 | % 16,7 | **% 34,3** | **% 3,2** | **% 14,4** |
| 16-25 | % 33,3 | | | **% 5,7** | | **% 2,1** |
| > 25 | % 16,7 | | | **% 2,9** | | |
| Langileak, guztira | 217 | 86 | 66 | **369** | **143** | **512** |
| Batez beste | 36,2 | 7,8 | 3,7 | **10,5** | **2,3** | **5,3** |

### 2.2.4. Kontsumo-merkatua

- **Barne-merkatuko eskaintza**

  - ***Sektorearen azterketa fakturazio-mailaren arabera***

EAEko argitaletxeek 71,034 milioi euro fakturatu zituzten 2001ean estatu espainiar osoan (liburuen azaleko prezioa hartzen da aintzat, BEZa barne), hau da, 2000.urtean baino % 0,3 gehiago.

| **Euskadiko argitaletxeen sektorea** | **Fakturazioa** (milioika eurotan) | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | **2000** | | **2001** | | **Hazkundea** |
| Editore-elkarteko partaideak | 52,0 | % 73 | 55,6 | % 78 | % 7 |
| Editore-elkarteko partaide ez direnak | 18,9 | % 27 | 15,5 | % 22 | -% 18 |
| | 70,8 | % 100 | 71,0 | % 100 | % 0 |




Honela banatzen da fakturazio hori, liburuak argitaratzen diren hizkuntzari dagokionez:

- 44,952 milioi euro gaztelaniazko liburugintzak (fakturazio osoaren % 63), eta
- 26,082 milioi euro euskarazkoak (fakturazio osoaren % 37).

Euskadiko liburugintzaren merkatua (estatu espainiarraren barruan) aztertuz gero, hauxe dugu emaitza: produkzio osoaren % 56 EAEn bertan saldu zen; gainerakoa (% 44), berriz, estatuko gainerako herrialdeetan.



Jakina, aldatu egiten da banaketa hori hizkuntzak bereizita aztertuz gero: euskarazko liburuen % 90 Euskadin saldu zen; aldiz, gaztelaniazko liburuen % 36 bakarrik saldu zen Euskadin.

Koadro honetan ikusten da garbiago bereizketa hori:

**Fakturazioa** (azaleko prezioa aintzat hartuta, BEZa barne)
Milaka eurotan

| | Gaztelaniaz | | | | Euskaraz | | | Guztira | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | € | %, guztizkoarekiko | Hazkundea, aurreko urtekoarekiko | Hazkundea, 1997koarekiko | € | %, guztizkoare-kiko | Hazkundea, aurreko urtekoarekiko | € | Hazkundea, aurreko urtekoarekiko. | Hazkundea, 1997koarekiko |
| 1997 | 45.894 | % 65 | | | 24.545 | % 35 | | 70.439 | | |
| 1998 | 49.162 | % 68 | % 7,1 | % 7,1 | 23.476 | % 32 | -% 4,4 | 72.638 | % 3,1 | % 3,1 |
| 1999 | 46.194 | % 66 | -% 6,0 | % 0,7 | 24.287 | % 34 | % 3,5 | 70.481 | -% 3,0 | % 0,1 |
| 2000 | 45.821 | % 65 | -% 0,8 | -% 0,2 | 24.996 | % 35 | % 2,9 | 70.817 | % 0,5 | % 0,5 |
| **2001** | **44.952** | **% 63** | **-% 1,9** | **-% 2,1** | **26.082** | **% 37** | **% 4,3** | **71.034** | **% 0,3** | **% 0,8** |
| **Euskadin** | **16.213** | **% 36** | | | **23.566** | **% 90** | | **39.779** | **% 56** | |
| **Estatuan** | **28.739** | **% 64** | | | **2.516** | **% 10** | | **31.255** | **% 44** | |

Azken bost urteotako fakturazioaren joera aztertuta, berriz, datuek dioskute geldialdia izan duela sektore osoaren fakturazioak, % 0,8koa bakarrik izan baita epe horretako hazkunde-tasa.




Aipatzekoa da, dena dela, bilakaera oso ezberdina izan dutela tarte horretan gaztelaniazko liburugintzak eta euskarazkoak.

Gaztelaniaz ez da fakturazio-hazkunderik izan, alderantziz baizik (ia % 2,1 egin du behera); euskaraz, aldiz, % 6,3ko igoera izan zuen epe berean.

Euskadiko elebitasun-egoerari esker izan ditu emaitza positiboak sektoreak, lehenago ere bagenioenez, eta euskarazko edizioaren igoerak konpentsatu du gaztelaniazkoaren jaitsiera. Nahitaez gogoan hartu beharreko faktorea da hori (elebitasuna) sektoreari buruzko estrategia guztietan.

Euskadiko barne-kontsumoaren nondik norakoak aztertzeko beste azterketa bat ere egin beharra dago, nahitaez gainera: argitaratzen diren liburu-motei buruzkoa, alegia. Gaikako azterketa eginez gero, fakturazioaren % 40 testu-liburuei dagokie; gainerako % 60, bestelako liburuei.

Bi faktore horiek (hizkuntza eta gaia) elkarrekin uztartuz gero, hauxe dugu emaitza:

- Gaztelania. Gaztelaniazko liburuen fakturazioaren % 32 testu-liburuetatik dator, batez ere unibertsitaterako testuetatik (bi heren baino gehiago); gainerako % 68a, berriz, bestelako liburuetatik dator, haur eta gazteentzako liburuetatik batik bat.

- Euskara. Testu-liburu ez-unibertsitarioetatik dator fakturazioaren % 52; gainerako % 48a, berriz, bestelako liburuetatik (erdia baino gehiago haur eta gazteentzako liburuak).

**2001eko fakturazioa, gaiaren arabera**
Milaka eurotan

| | Gaztelaniaz | | | Euskaraz | | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | € | % | %, guztizkoarekiko | € | % | %, guztizkoarekiko | € | % |
| Literatura | 4.965 | % 11 | % 72 | 1.930 | % 7 | % 28 | 6.895 | % 10 |
| Haur eta gazteentzako liburuak | 7.960 | % 18 | % 52 | 7.388 | % 28 | % 48 | 15.348 | % 22 |
| Testu ez-unibertsitarioak | 9.423 | % 21 | % 41 | 13.521 | % 52 | % 59 | 22.944 | % 32 |
| Haur-hezkuntzarako liburuak | 3.061 | % 7 | % 53 | 2.768 | % 11 | % 47 | 5.829 | % 8 |
| Lehen hezkuntzarako liburuak | 247 | % 1 | % 7 | 3.231 | % 12 | % 93 | 3.478 | % 5 |
| DBHrako liburuak | 3.795 | % 8 | % 37 | 6.454 | % 25 | % 63 | 10.249 | % 14 |
| Batxilergorako liburuak | 1.152 | % 3 | % 61 | 740 | % 3 | % 39 | 1.892 | % 3 |
| LHrako liburuak | 248 | % 1 | % 91 | 25 | % 0 | % 9 | 273 | % 0 |
| Liburu eta material osagarriak | 920 | % 2 | % 75 | 303 | % 1 | % 25 | 1.223 | % 2 |
| Testu unibertsitarioak eta zientifiko-teknikoak | 5.118 | % 11 | % 98 | 120 | % 0 | % 2 | 5.238 | % 7 |
| Giza eta gizarte-zientziak eta humanitateak | 3.743 | % 8 | % 94 | 254 | % 1 | % 6 | 3.997 | % 6 |
| Gidaliburuak | 2.172 | % 5 | % 86 | 345 | % 1 | % 14 | 2.517 | % 4 |
| Dibulgazioa, oro har | 3.535 | % 8 | % 79 | 933 | % 4 | % 21 | 4.468 | % 6 |
| Hiztegiak/Entziklopediak | 7.684 | % 17 | % 83 | 1.591 | % 6 | % 17 | 9.275 | % 13 |
| Bestelakoak | 352 | % 1 | % 100 | 0 | % 0 | % 0 | 352 | % 0 |
| **Guztira** | **44.952** | **% 100** | **% 63** | **26.082** | **% 100** | **% 37** | **71.034** | **% 100** |
| **Testu-liburuak** | **14.541** | % 32 | % 52 | **13.641** | % 52 | % 48 | **28.182** | **% 40** |
| **Bestelakoak** | **30.411** | % 68 | % 71 | **12.441** | % 48 | % 29 | **42.852** | **% 60** |

- ***Sektorearen azterketa, argitaratzen den ale-kopuruaren arabera***

Zazpi milioi ale baino gehiago argitaratu zituzten Euskadiko argitaletxeek 2001ean, aurreko urtean baino % 12 gutxiago. Kezkatzeko moduko zifra, azken bost urteotako baxuena baita.

Aipatu kopuru horretatik % 66 euskarazko liburuak ziren; gainerako % 34a, gaztelaniazkoak. Estrukturala bilakatu da dagoeneko gaztelaniazko liburugintzaren beherako joera hori.




Argitaratze-hizkuntzaren arabera liburugintzak denbora-epe horretan izan duen bilakaerak datuok ageri ditu:

- Euskaraz.
  - % 25 hazi da 1997az geroztik euskaraz argitaratzen den liburu-kopurua
  - argitaratzen zen kopuru osoaren % 46 plazaratzen zen euskaraz denbora-tarte horren hasieran; 2001ean, berriz, % 66koa zen portzentajea.
- Gaztelaniaz
  - % 45 egin du behera gaztelaniazko liburugintzak. Bereziki aipagarria da 2001eko jaitsiera: % 30 egin zuen behera 2000. urtearekin alderatuta.
  - % 54koa zen 1997an gaztelaniaz argitaratutako liburuen proportzioa; 2001ean, % 34koa.




**Argitaratutako ale-kopurua**
(milaka aletan)

| | Gaztelaniaz | | | | Euskaraz | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kopurua | %, guztizkoarekiko | Hazkundea, aurreko urtekoarekiko | Hazkundea, 1997koarekiko | Kopurua | %, guztizkoarekiko | Hazkundea, aurreko urtekoarekiko | Hazkundea, 1997koarekiko | Kopurua |
| 1997 | 4.408 | % 54 | | | 3.781 | % 46 | | | 8.189 |
| 1998 | 5.040 | % 55 | % 14 | % 14 | 4.045 | % 45 | % 7 | % 7 | 9.084 |
| 1999 | 4.182 | % 50 | -% 17 | -% 5 | 4.265 | % 50 | % 5 | % 13 | 8.447 |
| 2000 | 3.479 | % 43 | -% 17 | -% 21 | 4.611 | % 57 | % 8 | % 22 | 8.091 |
| **2001** | **2.421** | **% 34** | **-% 30** | **-% 45** | **4.733** | **% 66** | **% 3** | **% 25** | **7.154** |

Euskaraz argitaratutako aleetatik, % 60 editore-elkarteko partaide diren enpresek plazaratu zituzten; % 40, berriz, partaide ez direnek.

Biziki garrantzitsua da datu hori Euskadiko Editoreen Elkartearen egitura zein den jabetzeko. Izan ere, editore-elkarteko kide ez diren enpresek argitaratzen dituzten aleen % 96 euskarazko liburuenak dira; gaztelaniaz argitaratzen diren aleen % 97, berriz, elkarteko partaide diren enpresek plazaratzen dituzte.

**Argitaratutako ale-kopurua**
Milaka aletan

| | Gaztelaniaz | | | Euskaraz | | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kopurua | %, gazt. | %, guzt. | Kopurua | %, eusk. | %, guzt. | Kopurua | % |
| Editore-elkarteko partaide diren enpresak | 2.347 | % 97 | % 45 | 2.840 | % 60 | % 55 | 5.186 | % 72,5 |
| Editore-elkarteko partaide ez diren enpresak | 74 | % 3 | % 4 | 1.893 | % 40 | % 96 | 1.967 | % 28 |
| **Guztira** | **2.421** | % 100 | | **4.733** | % 100 | | **7.154** | % 100 |

***Sektorearen azterketa, argitaratzen diren tituluen arabera***

Argitaratutako ale-kopuruari buruzko ondorioen antzekoak dakarzkigu argitaratutako tituluen azterketak ere:

2.803 titulu argitaratu ziren 2001ean, arreko urtean baino % 9 gutxiago.

Kopuru horretatik, euskarazko tituluak ziren % 58; gainerako % 42a, gaztelaniazkoak.

Aurreko atalean bezalaxe, honako honetan ere bilakaera positiboa izan du euskarazko liburugintzak: % 48ko hazkundea metatu du azken bost urteotan. Gaztelaniazkoak, aitzitik, % 25eko jaitsiera.

Editore-elkarteko partaide diren enpresek argitaratu zituzten 2001ean tituluen % 69; partaide ez direnek, berriz, % 31.

**Argitaratutako titulu-kopurua**

| | **Gaztelaniaz** | | | | **Euskaraz** | | | | **Guzt** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kopurua | %, guztizkoarekiko | Hazkundea, aurreko urtekoarekiko | Hazkundea, 1997koarekiko | Kopurua | %, guztizkoarekiko | Hazkundea, aurreko urtekoarekiko | Hazkundea, 1997koarekiko | Kopurua | Hazkun aurre urtekoar |
| 1997 | 1.568 | % 59 | | | 1.095 | % 41 | | | 2.663 | |
| 1998 | 1.561 | % 57 | % 0 | % 0 | 1.177 | % 43 | % 7 | % 7 | 2.738 | % |
| 1999 | 1.343 | % 50 | -% 14 | -% 14 | 1.360 | % 50 | % 16 | % 24 | 2.703 | -% |
| 2000 | 1.477 | % 48 | % 10 | -% 6 | 1.589 | % 52 | % 17 | % 45 | 3.066 | % 1 |
| **2001** | **1.182** | **% 42** | **-% 20** | **-% 25** | **1.621** | **% 58** | **% 2** | **% 48** | **2.803** | **-%** |

**Esportazioak**

Argitaletxeek eurek egin zituzten sektore honetako esportazio gehienak (% 94 ia) aipatu epean; banatzaileek, ostera, % 6 besterik ez.

'Liburuen eta antzeko produktuen salerosketa Euskadin, 2001-2000' txostenaren arabera, ia sei milioi euroko esportazioak egin zituen 2001ean argitaletxeen sektoreak (CIF prezioak hartu ditugu aintzat).

Zehatzago adierazita, 5,961 milioi eurokoak izan ziren esportazioak (CIF prezioak aintzat hartuta, genioenez) 2001eko ekitaldian, aurreko urtean baino % 7,2 handiagoak. Liburuen esportazioari dagokio –soilik– fakturazio hori; hortik kanpo daude, beraz, kideko produktuei dagozkien fakturazioak.

**Esportazioak** (liburuak soilik); **CIF**aren araberako datuak

| **Eremuak** | **2000** | | | **2001** | | | **Hazkundea** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **€** | **%, guztizkoarekiko** | | **€** | **%, guztizkoarekiko** | | |
| Ameriketako Estatu Batuak | 120 | % 2 | | 671 | % 11 | | % 449,1 |
| Latinoamerika | 2.072 | % 37 | | 2.127 | % 36 | | % 2,6 |
| Europako Batasuna | 3.235 | % 58 | | 3.122 | % 52 | | % 3,6 |
| Europako gainerako herrialdeak | 120 | % 2 | | | % 0 | | -% 2 |
| Munduko gainerako herrialdeak | 12 | % 0 | | 41 | % 1 | | % 241 |
| **Liburu-kopurua, guztira** | **5.559** | **% 100** | | **5.961** | **% 100** | | **% 7,2** |

Europako Batasunera saldu ziren 2001ean esportazioen % 52; Amerikara, berriz, % 47.




Latinoamerikari dagokionez, herrialde hauetara esportatu zen gehienbat 2001ean: Mexikora (esportazioen % 34), Kolonbiara (% 10), Ekuadorrera (% 8) eta Txilera (% 7). Aipatzekoa da Argentinarako esportazioek 2002an izan zuten gainbehera, 2001ean izan zutenaren jarraian (-% 50etik gorakoa).

Europako Batasunerako esportazio gehienak, berriz, Erresuma Batura (% 64) eta Frantziara (% 21) egin ziren.

Esportazioko liburuen edukiari dagokionez, erdia baino gehiago (% 60) Gai Orokorrak sailekoak ziren; gainerakoak, Erlijioa (% 19), Literatura (% 10), Filosofia (% 4), Irakaskuntza (% 4) eta Bestelakoak sailetakoak.

### 2.2.5. Banatzeko bideak

Liburu-dendek banatzen dute liburu gehien (% 49); atzetik datoz (oso urrutira, baina) liburu-denden kateak (% 9) eta argitaletxeak (% 9).

Banaketa-bide berberetatik saltzen dira liburuak (euskarazkoak nahiz gaztelaniazkoak): liburu-dendetan saltzen dira gehien hizkuntza batekoak zein bestekoak. Alde horretatik ez dago alde handirik, kredituko salmentaren alorrean izan ezik: gaztelaniazko liburuen % 13 saltzen dira sistema horren bidez; euskarazkoak, % 3 besterik ez.

| **2001eko fakturazioa, liburuak banatzeko bidearen arabera**<br>Milaka eurotan | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Gaztelaniaz** | | | **Euskaraz** | | | **Guztira** | |
| | **€** | **%** | %, guztizkoa rekiko | **€** | **%** | %, guztizkoa rekiko | **€** | **%** |
| Liburu-dendak | 20.077 | % 45 | % 58 | 14.746 | % 57 | % 42 | 34.823 | % 49 |
| Liburu-denden kateak | 3.968 | % 9 | % 61 | 2.530 | % 10 | % 39 | 6.498 | % 9 |
| Hipermerkatuak | 3.215 | % 7 | % 54 | 2.736 | % 10 | % 46 | 5.951 | % 8 |
| Kioskoak | 40 | % 0 | % 55 | 33 | % 0 | % 45 | 73 | % 0 |
| Enpresak eta erakundeak | 3.957 | % 9 | % 59 | 2.765 | % 11 | % 41 | 6.722 | % 9 |
| Liburutegiak | 828 | % 2 | % 63 | 492 | % 2 | % 37 | 1.320 | % 2 |
| Argitaletxeak | 2.622 | % 6 | % 97 | 83 | % 0 | % 3 | 2.705 | % 4 |
| Kredituko salmenta | 5.627 | % 13 | % 87 | 848 | % 3 | % 13 | 6.475 | % 9 |
| Posta bidezko salmenta | 2.579 | % 6 | % 100 | 0 | % 0 | % 0 | 2.579 | % 4 |
| Telefonoz + Kluben bitartez + Internetez + Harpidetzen bidez | 583 | % 1 | % 93 | 41 | % 0 | % 7 | 624 | % 1 |
| Bestelakoak | 1.456 | % 3 | % 45 | 1.808 | % 7 | % 55 | 3.264 | % 5 |
| **Guztira** | **44.952** | **% 100** | **% 63** | **26.082** | **% 100** | **% 37** | **71.034** | **% 100** |

Liburuak merkaturatzeko bideen bilakaerak adierazten digunez, argitaletxeek % 83 gehitu dituzte salmentak 1999arekiko; hipermerkatuek, % 46, eta liburu-denden kateek, azkenik, % 42. Gaur egungo kontsumitzailearen joeren adierazgarri dira datuok (erosketak saltoki handietan egitea...). Kioskoek izan dute salmenta-jaitsiera handiena (% 98koa) epe berean; jarraian datoz telefono bidezko salmentak +Kluben bitartez egindakoak + Internet bidezkoak +Harpidetza bidezkoak (-% 85) eta kredituko salmentak (-% 21).

| **Fakturazioa, merkaturatze-bidearen arabera**<br>Milaka eurotan | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **1999** | | **2000** | | | **2001** | | | | |
| | **€** | **%** | **€** | **%** | Hazkundea, aurreko urtekoarekiko | **€** | **%** | Hazkundea, aurreko urtekoarekiko | Hazkundea, 1999koarekiko |
| Liburu-dendak | 34.536 | % 49 | 34.346 | % 48 | -% 1 | 34.823 | % 49 | % 1 | % 1 |
| Liburu-denden kateak | 4.581 | % 6 | 5.595 | % 8 | % 22 | 6.498 | % 9 | % 16 | % 42 |
| Hipermerkatuak | 4.088 | % 6 | 5.736 | % 8 | % 40 | 5.951 | % 8 | % 4 | % 46 |
| Kioskoak | 3.876 | % 5 | 212 | % 0 | -% 95 | 73 | % 0 | -% 66 | -% 98 |
| Enpresak eta erakundeak | 6.343 | % 9 | 5.736 | % 8 | -% 10 | 6.722 | % 9 | % 17 | % 6 |
| Liburutegiak | | % 0 | 354 | % 0 | | 1.320 | % 2 | % 273 | |
| Argitaletxeak | 1.480 | % 2 | 1.416 | % 2 | -% 4 | 2.705 | % 4 | % 91 | % 83 |
| Kredituko salmenta | 8.246 | % 12 | 7.507 | % 11 | -% 9 | 6.475 | % 9 | -% 14 | -% 21 |
| Posta bidezko salmenta | 2.114 | % 3 | 1.700 | % 2 | -% 20 | 2.579 | % 4 | % 52 | % 22 |
| Telefonoz + Kluben bitartez + Internetez + Harpidetzen bidez | 4.088 | % 6 | 3.258 | % 5 | -% 20 | 624 | % 1 | -% 81 | -% 85 |
| Bestelakoak | 1.128 | % 2 | 4.957 | % 7 | % 339 | 3.264 | % 5 | -% 34 | % 189 |
| **Guztira** | **70.481** | **% 100** | **70.817** | **% 100** | **% 0** | **71.034** | **% 100** | **% 0** | **% 1** |

### 2.2.6. Liburuaren + kulturaren prezioa

Txosten honetan bertan lehendik esana dugunez, 12,09 eurokoa izan zen liburuen batez besteko prezioa 2001ean. Dezenteko igoera izan zuen batez besteko salneurri horrek aurreko urtekoarekin alderatuta, % 5ekoa ia. Dena den, elkarrizketatutako irakurleen % 48k diote nahiko prezio egokia dutela liburuek; % 2,3k dio merkeak direla, eta, azkenik, garestia deritze prezioei % 47,3k, Liburuak Irakurtzeko eta Erosteko Ohiturei buruzko 2001eko ikerlanak dioenez.

## 2.3. AMIA AZTERKETAREN EMAITZA NAGUSIAK

- **AUKERAK**
  - Euskadiren izaera elebidunak izugarrizko merkatu natural (bertakoa) zabala eskaintzen die euskal argitaletxeei
  - Edizioa eta irakurtzeko ohitura sustatzeko premia, baita horien hazkundea bermatzeko ere
  - Erdi- eta goi-mailako ikasketak dituzten euskal herritarren portzentajea
  - Euskadiko per capita errenta
  - Teknologia berrien hedapena (edizio eta euskarri elektronikoak, ingeniaritza linguistikoa...)
  - Irakurtzeko ohitura berriak, teknologia eta ezagutza berriak eskuratzeko aukera eta horrek Euskal herriko biztanleria-egiturarekin duen lotura (adinari eta trebakuntzari dagokionez)
  - Esportaziorako merkatu naturalak –Latinoamerika; EB (hurbiltasunagatik)...–
- **MEHATXUAK**
  - Irakurtzeko eta liburuak erosteko ohitura handirik eza
  - Teknologia berriak ezagutzeko eta erabiltzeko joera txikia
  - Teknologiaz hornitzeko inbertsioen kostua
  - EAEko barne-eskaria prezio merkeagoan ase dezaketen argitaletxe handiak daude
  - Liburutegi publikoak gaztelaniazko liburuz hornitzeko eta tituluak etengabe aldatzeko, euskal argitaletxeek ez dute bermatzen hizkuntza horretan argitaratutako tituluen gutxieneko kopururik
  - Liburu ugari argitaratzen dute erakunde publikoek eta gero eta lehia handiagoan dabiltza Euskadiko argitaletxe pribatuekin, enpresa horien kalterako betiere
  - Ez dago trebakuntza-zentro espezializaturik

- **INDARRAK**
    - Bertako merkatua ondo ezagutzea
    - Produktuaren kalitatea
    - Prezioa
    - Administrazioarekiko hurbiltasuna

- **AHULEZIAK**
    - Argitaletxeen eta banaketa-enpresen tamaina txikia
    - Estrategia komertzial eta marketin-politika desegokiak
    - Negozioak nazioartera hedatzeko estrategia desegokia
    - Sektore honetako langileen trebakuntza eskasa
    - Gutxiegi inbertitzen da I+Gean, baita produktu eta euskarri berrietan ere. Teknologia berriak ezagutzeko eta erabiltzeko joera txikia

## 3. GOMENDIOAK

### 3.1. ADMINISTRAZIO PUBLIKOARI

**LIBURUGINTZAREN INDUSTRIA MODERNIZATZEA**

- Liburugintzaren industria bultzatzeko laguntza-programa, eraginkortasuna, kalitatea, enpresen finantza-egitura... hobetzeko
- Diru-laguntzak liburuen ekoizpenari eta banaketari
- Diru-laguntzak teknologia berrietan, ekipamendu industrialean eta abarretan inbertitzeko
- EAEko hiru lurralde historikoetan liburugintzaren industriari tratamendu egokia eta orekatua bermatzeko hartu beharreko neurriak eta erabakiak proposatzea
- Diru-laguntzak liburutegi publikoetako eta eskola-liburutegietako liburu-fondoak txandakatu eta berritzeko
- Diru-laguntzak liburugintza-sektoreko I+G jarduerei
- Diru-laguntzak liburu-dendei, liburutegiei eta argitaletxeei teknologia berrietara egoki daitezen: katalogoak, datu-baseak, softwarea eta hardwarea eskuratzea, ahotsa eta hizkuntza tratatzeko euskarriak...
- Diru-laguntzak liburugintza-industria osoa hobetzeko ikerketak eta proiektuak egin daitezen
- Diru-laguntzak eta laguntzak itzulpengintzari eta itzultzaileei

**LIBURU-ARGITALETXEEN ENPRESAK NAZIOARTERA HEDATZEA**

- Laguntzak nazioartean marketina egiteko
- Laguntzak esportazioari

**LIBURUGINTZAREN INDUSTRIARAKO KULTUR INGURUNE EGOKIA BULTZATZEKO NEURRIAK**

- Irakurzaletasuna sustatzea
- Literatur sormena bultzatzea
- Euskadiko liburutegiak gaztelaniazko liburuz hornitzeko (bibliografia selektiboa), ziurtatzea EAEko argitaletxeek ekoitzitako gaztelaniazko titulu-kopuru bereziki handia erabiliko dela
- Haurren irakurzaletasuna sustatzea. Ikasgelako liburutegiak bultzatzea. Irakurzaletasuna eta liburuaren aldeko jarrerak sustatzeko programak
- Laguntzak argitaletxeei euskal idazleen liburuak plazara ditzaten
- Aisialdiko jardueratzat bultzatzea irakurzaletasuna. ‘Erraz irakurtzeko’ literaturari diru-laguntzak ematea, irakurtzeko ohitura sustatzearren
- Diru-laguntzak eta laguntzak liburutegi publikoei eta ikasgeletako liburutegiei
- Laguntzak liburutegietako liburu-kopurua handitzeko
- Diru-laguntzak eta laguntzak liburu-dendak antolatu, kudeatu eta berritzeko
- Irakurzaletasuna eta liburua sustatzeko, fundazioak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak bultzatzea

**LAGUNTZAK EUSKARARI**

- Diru-laguntzak euskarazko liburugintza sustatzeko
- Diru-laguntzak liburuen euskaratzea sustatzeko
- Diru-laguntzak euskal idazleen euskarazko liburuak beste hizkuntza batzuetara itzultzeko
- Euskal literatura eta euskal idazleen sormen-gaitasuna Euskadin eta hemendik kanpo sustatzeko ekimenak
- Diru-laguntzak liburuak irakurtzeko ohitura sustatzeko

# ERANSKINAK

# 4. ERANSKINAK

## 4.1. I. ERANSKINA. Gaitasun linguistikoa (portzentaje bertikalak)

| | Euskal Herria | Lurralde historikoa | | | Nafarroa | Eremu linguistikoa | | | Ipar Euskal Herria | Eremuak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | | Euskalduna | Mistoa | Ez-euskalduna | | BAB (1) | Lapurdi | Nafarroa Beherea-Zuberoa |
| Laginaren tamaina (zenbaki absolutuak) | 6.359 | 778 | 1.398 | 1.319 | 1.464 | 504 | 672 | 288 | 1.400 | 392 | 508 | 500 |
| GUZTIRA | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |
| ELEBITASUN-MOTAK: | | | | | | | | | | | | |
| Euskaldun elebakarra | 1 | - | 0 | 1 | 0 | 2 | | - | 1 | - | 1 | 3 |
| Euskaldun elebidun funtzionala | 7 | 0 | 4 | 15 | 3 | 24 | 1 | 0 | 8 | 1 | 11 | 23 |
| Elebidun funtzional orekatua | 7 | 2 | 5 | 15 | 3 | 18 | 1 | 0 | 8 | 4 | 8 | 25 |
| Erdaldun elebidun funtzionala | 8 | 5 | 8 | 14 | 4 | 16 | 3 | 1 | 9 | 4 | 12 | 14 |
| Elebidun pasiboa | 15 | 15 | 18 | 13 | 10 | 7 | 13 | 6 | 9 | 4 | 14 | 12 |
| Erdaldun elebakarra | 63 | 78 | 63 | 42 | 81 | 33 | 82 | 93 | 64 | 87 | 55 | 24 |
| ELEBITASUN-MOTA: | | | | | | | | | | | | |
| Euskalduna | 23 | 8 | 18 | 44 | 10 | 60 | 5 | 1 | 26 | 9 | 31 | 64 |
| Erdalduna | 77 | 92 | 82 | 56 | 90 | 40 | 95 | 99 | 74 | 91 | 69 | 36 |
| ZEIN IZAN ZEN ZURE LEHENBIZIKO HIZKUNTZA HAURTZAROAN? | | | | | | | | | | | | |
| Euskara | 19 | 4 | 14 | 38 | 8 | 55 | 4 | 0 | 26 | 9 | 32 | 61 |
| Biak | 3 | 1 | 3 | 6 | 2 | 5 | 2 | 0 | 5 | 2 | 7 | 9 |
| Gaztelania | 76 | 94 | 82 | 55 | 89 | 40 | 93 | 99 | 62 | 80 | 56 | 27 |

| | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Beste bat | 1 | 2 | 1 | 1 | 1 | 0 | 1 | 1 | 6 | 8 | 6 | 3 |
| GAITASUNA EUSKARAZ, AMA-HIZKUNTZAREN ARABERA | | | | | | | | | | | | |
| Ama-hizkuntza, euskara; ongi hitz egiten du | 19 | 3 | 14 | 40 | 8 | 56 | 3 | 0 | 25 | 8 | 30 | 63 |
| Ama-hizkuntza, euskara; zerbait hitz egiten du | 2 | 1 | 2 | 3 | 1 | 1 | 2 | 0 | 3 | 2 | 5 | 4 |
| Ama-hizkuntza, euskara; ez du hitz egiten | 1 | 0 | 2 | 1 | 1 | 3 | 2 | | 3 | 2 | 3 | 3 |
| Ama-hizkuntza, gaztelania; ongi hitz egiten du | 4 | 5 | 4 | 5 | 2 | 4 | 3 | 0 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| Ama-hizkuntza, gaztelania; zerbait hitz egiten du | 10 | 13 | 15 | 7 | 8 | 4 | 11 | 5 | 3 | 1 | 5 | 4 |
| Ama-hizkuntza, gaztelania; ez du hitz egiten | 63 | 78 | 63 | 45 | 80 | 32 | 80 | 94 | 64 | 86 | 55 | 25 |

(1) B.A.B. = Baiona, Angelu, Biarritz

(-) Daturik ondorioztatzeko bezain esanguratsua ez da lagina

*Iturria: Euskal Herriko Soziolinguistika Inkesta. 1996*

## 4.2. II. ERANSKINA. Ikasleak, mailaka, irakaskuntza elebiduneko ereduaren arabera

| | Guztira | A eredua (2) | B eredua (3) | D eredua (4) | X eredua (5) |
|---|---|---|---|---|---|
| **Euskal Autonomia Erkidegoa** | | | | | |
| Guztira | 303.606 | 98.033 | 67.060 | 136.539 | 1.974 |
| Haur-hezkuntza | 60.841 | 5.902 | 17.514 | 37.026 | 399 |
| Lehen hezkuntza | 96.728 | 18.929 | 28.293 | 48.650 | 856 |
| Hezkuntza berezia (haur eta lehen hezkuntza) | 428 | 387 | 12 | 29 | - |
| Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) | 77.749 | 26.370 | 19.131 | 31.651 | 597 |
| Hezkuntza berezia (DBH) | 179 | 150 | 18 | 11 | - |
| Batxilergoa (LOGSE) | 36.845 | 21.027 | 634 | 15.062 | 122 |
| LH, LOGSE (erdi-mailakoa) | 11.314 | 9.102 | 527 | 1685 | - |
| LH, LOGSE (goi-mailakoa) | 19.004 | 15.747 | 913 | 2344 | - |
| Hezkuntza berezia (LH) | 518 | 419 | 18 | 81 | - |
| **Araba** | | | | | |
| Guztira | 42.726 | 19.988 | 11.178 | 11.560 | - |
| Haur-hezkuntza | 7.819 | 1.323 | 3.675 | 2.821 | - |
| Lehen hezkuntza | 13.531 | 4.421 | 4.859 | 4.251 | - |
| Hezkuntza berezia (haur eta lehen hezkuntza) | 72 | 66 | 4 | 2 | - |
| Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) | 11.134 | 5.663 | 2.639 | 2.832 | - |
| Hezkuntza berezia (DBH) | 28 | 24 | 1 | 3 | - |
| Batxilergoa (LOGSE) | 5.525 | 3.944 | - | 1581 | - |
| LH, LOGSE (erdi-mailakoa) | 1893 | 1860 | - | 33 | - |
| LH, LOGSE (goi-mailakoa) | 2635 | 2599 | - | 36 | - |
| Hezkuntza berezia (LH) | 89 | 88 | - | 1 | - |
| **Bizkaia** | | | | | |
| Guztira | 160.498 | 63.078 | 31.476 | 63.970 | 1.974 |
| Haur-hezkuntza | 32.233 | 3.995 | 9.239 | 18.600 | 399 |
| Lehen hezkuntza | 50.796 | 13.410 | 13.145 | 23.385 | 856 |
| Hezkuntza berezia (haur eta lehen hezkuntza) | 288 | 270 | 5 | 13 | - |
| Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) | 42.120 | 18.950 | 8.031 | 14.542 | 597 |
| Hezkuntza berezia (DBH) | 71 | 58 | 5 | 8 | - |
| Batxilergoa (LOGSE) | 19.428 | 12.547 | 171 | 6.588 | 122 |
| LH, LOGSE (erdi-mailakoa) | 5.852 | 5.176 | 249 | 427 | - |
| LH, LOGSE (goi-mailakoa) | 9.399 | 8.397 | 631 | 371 | - |
| Hezkuntza berezia (LH) | 311 | 275 | - | 36 | - |
| **Gipuzkoa** | | | | | |
| Guztira | 100.382 | 14.967 | 24.406 | 61.009 | - |
| Haur-hezkuntza | 20.789 | 584 | 4.600 | 15.605 | - |
| Lehen hezkuntza | 32.401 | 1.098 | 10.289 | 21.014 | - |
| Hezkuntza berezia (haur eta lehen hezkuntza) | 68 | 51 | 3 | 14 | - |
| Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) | 24.495 | 1.757 | 8.461 | 14.277 | - |
| Hezkuntza berezia (DBH) | 80 | 68 | 12 | - | - |
| Batxilergoa (LOGSE) | 11.892 | 4.536 | 463 | 6.893 | - |
| LH, LOGSE (erdi-mailakoa) | 3.569 | 2.066 | 278 | 1225 | - |
| LH, LOGSE (goi-mailakoa) | 6.970 | 4.751 | 282 | 1937 | - |
| Hezkuntza berezia (LH) | 118 | 56 | 18 | 44 | - |

(1) Erregimen orokorreko irakaskuntza ez-unibertsitarioak. Ez da hor sartzen helduen etengabeko heziketa.

(2) Ikasgaitzat daukate euskara

(3) Irakaskuntza elebiduna

(4) Irakaskuntza osoa euskaraz

(5) Ez dute euskararik ikasten

## 4.3. ANEXO 3. Ikasleak, titulu eta mailaren arabera

| | Euskal Autonomia Erkidegoa | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|---|
| **Ikastetxe guztiak** | | | | |
| Guztira | 303.606 | 42.726 | 160.498 | 100.382 |
| Haur-hezkuntza | 60.841 | 7.819 | 32.233 | 20.789 |
| Lehen hezkuntza | 96.728 | 13.531 | 50.796 | 32.401 |
| Hezkuntza berezia (haur eta lehen hezkuntza) | 428 | 72 | 288 | 68 |
| Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) | 77.749 | 11.134 | 42.120 | 24.495 |
| Hezkuntza berezia (DBH) | 179 | 28 | 71 | 80 |
| Batxilergoa (LOGSE) | 36.845 | 5.525 | 19.428 | 11.892 |
| LH, LOGSE (erdi-mailakoa) | 11.314 | 1.893 | 5.852 | 3.569 |
| LH, LOGSE (goi-mailakoa) | 19.004 | 2.635 | 9.399 | 6.970 |
| Hezkuntza berezia (LH) | 518 | 89 | 311 | 118 |
| **Ikastetxe publikoak** | | | | |
| Guztira | 144.281 | 20.903 | 75.570 | 47.808 |
| Haur-hezkuntza | 31.457 | 4.163 | 16.248 | 11.046 |
| Lehen hezkuntza | 44.512 | 7.010 | 22.708 | 14.794 |
| Hezkuntza berezia (haur eta lehen hezkuntza) | 109 | 62 | 47 | - |
| Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) | 32.368 | 4.521 | 18.184 | 9.663 |
| Hezkuntza berezia (DBH) | 78 | 24 | 54 | - |
| Batxilergoa (LOGSE) | 20.427 | 2.994 | 10.965 | 6.468 |
| LH, LOGSE (erdi-mailakoa) | 6.587 | 1.039 | 3.262 | 2.286 |
| LH, LOGSE (goi-mailakoa) | 8.456 | 1.015 | 3.989 | 3.452 |
| Hezkuntza berezia (LH) | 287 | 75 | 113 | 99 |
| **Ikastetxe pribatuak** | | | | |
| Guztira | 159.325 | 21.823 | 84.928 | 52.574 |
| Haur-hezkuntza | 29.384 | 3.656 | 15.985 | 9.743 |
| Lehen hezkuntza | 52.216 | 6.521 | 28.088 | 17.607 |
| Hezkuntza berezia (haur eta lehen hezkuntza) | 319 | 10 | 241 | 68 |
| Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) | 45.381 | 6.613 | 23.936 | 14.832 |
| Hezkuntza berezia (DBH) | 101 | 4 | 17 | 80 |
| Batxilergoa (LOGSE) | 16.418 | 2.531 | 8.463 | 5.424 |
| LH, LOGSE (erdi-mailakoa) | 4.727 | 854 | 2.590 | 1.283 |
| LH, LOGSE (goi-mailakoa) | 10.548 | 1.620 | 5.410 | 3.518 |
| Hezkuntza berezia (LH) | 231 | 14 | 198 | 19 |

(1) Erregimen orokorreko irakaskuntza ez-unibertsitarioak. Ez da hor sartzen helduen etengabeko heziketa.

*Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritza.*

## 5. INFORMAZIO-ITURRIAK

5.1. Informe de la Edición en Euskadi Comercio Interior 2001

5.2. Estudio de Hábitos de lectura y compra de libros en Euskadi 2001.

5.3. Comercio Interior del libro en España 2001.

5.4. Comercio Exterior del libro y Productos afines en Euskadi 2001-2000.

5.5. Eustat-en estatistika-koadroak

Txostengilea: Javier Gogeascoechea jauna